



DEFIBRILADOREAK HERRI GUZTIETAN

Basaburuko Udalak eta kontzejuek hitzarmena sinatu dute herri guztietan desfibriladoreak jartzeko. Arraratsek, Beramendik, Gartzaronek eta Jauntsaratsek badituzte dagoeneko. Orain, bederatzi erosiko dira, falta diren herrietan jartzeko. Hitzarmenean adostu bezala, kontzejuek erosiko dituzte eta, ondoren, mantenua Udalaren eskuetan geldituko da. Gainera, ikastaroak antolatuko dira desfibriladorea erabiltzen ikasteko. Desfibriladorea ezinbesteko tresna da bihotzeko edo bihotz-gelditze baten aurrean bizitza salbatzeko. Horrelakoetan, deskarga elektriko bat bidaltzen du bihotzaren taupadak berriz abiarazteko.

DEFIBRILADORES EN TODOS LOS PUEBLOS



El Ayuntamiento de Basaburua y los concejos han firmado un acuerdo para que todos los pueblos cuenten con desfibrilador. Arrarats, Beramendi, Gartzaron y Jauntsarats ya tienen y ahora se van a comprar nueve más para colocar en los que quedan. Tal y como se acordó, serán los concejos quienes los compren, después, el Ayuntamiento se encargará de su mantenimiento. Además, se organizarán cursos para aprender a utilizarlo. El desfibrilador es una herramienta fundamental para salvar vidas ante un paro cardíaco. Funciona mediante una descarga eléctrica que restablece el funcionamiento y el latido del corazón.

AMAITU DIRA TURISMO JASANGARRIRAKO LANAK

Cederna Garalurrek kudeatzen duen Helmugako Turismo Jasangarrirako Planaren (HTJP) barruan kokatzen diren lanak dira eta Basaburuko Udalarekin hitzarmena sinatu zuen hauek burutzeko. Alde batetik, Oihanzabal eskola atzeko Baso Babeslea deituriko jostaketarako gunea naturala egokitu da; eta, bestetik, Pasaderetan bainatzeko gunea berri bat eta umeendako jostaketarako gunea ere egin da. Lanak amaitu dira dagoeneko eta horretarako 67.460,65 eta 97.314,91 euroko diru-laguntzak jaso ditu udalak.



FINALIZADAS LAS OBRAS PARA UN TURISMO SOSTENIBLE

Las obras están incluidas en el Plan de Sostenibilidad Turística en Destino (PSTD) que gestiona Cederna Garalur y para las que se firmó un acuerdo con el Ayuntamiento de Basaburua. Por un lado, se ha acondicionado para el juego el espacio natural que se encuentra detrás de la escuela Oihanzabal y al que se ha llamado Bosque Protector. Por otro, se ha colocado una zona para el baño y un espacio para juegos en las Pasaderas. Las obras ya están finalizadas y el Ayuntamiento ha recibido sendas subvenciones de 67.460,65 y 97.314,91 euros



EUSKARA BABESTEKO ZENBAIT NEURRI

Calle ordez, **Karrika** jarriko da kaleen izena jasotzen duten izendegi ofizialetan. Kontzeju guztietan egingen da aldaketa, euskararen erabilera errespetatzeko. Adibidez, "La Asunción Karrika" gisa jasoko da hemendik aurrera eta ez "Calle La Asunción", aldaketak ez baitio eragingo karrikaren izenari berari. Bestetik, euskararen aldeko neurrien artean, herritarren abizenak euskal grafiaz adierazteko kanpaina abiatu du Basaburuko Udalak Euskal Udalerrien Mankomunitatearekin (UEMArekin). Udaletxera NANaren fotokopiarekin, eta jaiotza eta errolda ziurtagiriekin joan eta denbora gutxian aldaketa tramitatu daiteke.



VARIAS ACTUACIONES EN FAVOR DEL EUSKARA

Se recogerá **Karrika** en vez de **Calle** en los registros oficiales de los nombres de las calles. El cambio se realizará en todos los concejos para respetar el uso del euskara. Por ejemplo, será "La Asunción Karrika" y no "Calle La Asunción", y el cambio no influirá en el propio nombre de la calle. Por otro lado, entre las medidas a favor del euskara, el Ayuntamiento de Basaburua y la Mancomunidad de Municipios Vascos, UEMA, ha simplificado el trámite para que todo aquel que quiera pueda registrar sus apellidos en grafía vasca. Basta con una fotocopia del DNI, y los certificados de nacimiento y empadronamiento y en poco tiempo se puede tramitar el cambio en el Ayuntamiento.



ALDAKETA, HAUR ESKOLAKO JANTOKIAN

Ausolan enpresak Basaburuko Ttikiena Haur Eskolako jantokiko kontratua utzi du eta Udala alternatiba bat bilatzen ari da datorren ikasturterako. Ultzamako Xinbili-Xanbala Haur Eskolan gauza bera gertatu da, eta, horregatik, Ultzamako Udalak Hezkuntzako Departamentuari baimena eskatu dio zerbitzu horietan ere Larraintzarko Ikastetxeko sukaldea erabiltzeko. Aramark enpresari eskainiko zaio zerbitzuaren ardura, gaur egun Oihanzabalgoa ere eskaintzen duen enpresa bera da.



CAMBIOS EN EL COMEDOR INFANTIL

La empresa Ausolan deja el contrato del comedor de la escuela infantil, Ttikiena. Por eso, el Ayuntamiento de Basaburua está buscando alternativa para el curso que viene. Ocurre lo mismo con la escuela infantil Xinbili-Xanbala de Iraizotz, y por eso, el Ayuntamiento de Ultzama ha pedido permiso al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra para que se pueda utilizar la cocina de la escuela de Larraintzar también para esos servicios. El contrato se le ofrecerá a Aramark, la misma empresa que lleva el comedor de la escuela Oihanzabal.

KONTRIBUZIOA EGUNERATUKO DA

Basaburuko Udalak higiezinaren katastro-balioak berrikusteko proposamena aurkeztu behar du Nafarroako Ogasunean, gainontzeko Nafarroako beste udalek bezala. 2015etik aldatu ez diren katastro balio berriak onartu dira 2026an eta kontribuzioa horretan oinarritzen denez proportzio berean igo beharko da 2027an. Beti bezala, Nafarroako Gobernuak eskatzen duen gutxienera igoko da.

SE ACTUALIZARÁ LA CONTRIBUCIÓN

El Ayuntamiento de Basaburua, tiene que presentar la propuesta de revisión del valor catastral de los bienes inmuebles al igual que el resto de consistorios de Navarra. En 2026 se han aprobado los nuevos valores catastrales, que no se modificaban desde 2015 y como la contribución se basa en ellos, subirá de manera proporcional en 2027. Como siempre, se incrementarán el mínimo que exige el Gobierno de Navarra.

UZTAILA/ JULIO			1	2	3	4	5
	6	7	8	9	10	11	12
	13	14	15	16	17	18	19
	20	21	22	23	24	25	26
	27	28	29	30	31		

- GARTZARONGO XLI. PILOTA TXAPELKETA
- KONTZERTUA: ANARI, 20:00etan TXOKOLATEROREN ATZEAN

ANARI ZUZENEAN, JAUNTSARATSEN

Aurten ere, Udaleko Euskara eta Kultura arlotik apustua egin da eta Anarik uztailaren 18an, Txokolatero atzeko oihanean zuzenekoa eskainiko du, 20:00etan. Musikari azkoitiarrak 1997an kaleratu zuen bere lehenengo bakarreko diskoa eta geroztik bederatzilan argitaratu ditu. Azkena, Giza Zarata, 2024an. Idazle bikaina ere, bere ahots bereziarekin, euskal folk-rockeko ezinbesteko bat da. Udako programa hau iaz estreinatu zen Hertzainakeko Gariren akustiko arrakastatsuekin.



CONCIERTO DE ANARI EN JAUNTSARATS

Este verano, vendrá otra de las grandes voces de la música en euskara: Anari. La de Azkoitia publicó en 1997 su primer trabajo en solitario, y desde entonces ha sacado nueve trabajos. El último Giza Zarata, en 2024. Además de una de las mejores letristas del panorama vasco, su atípica forma de cantar, la ha convertido en una de las grandes de nuestro folk rock. Actuará detrás de Txokolatero, el 18 de julio, a las 20:00. El año pasado fue Gari, de Hertzainak, quien inauguró este programa con éxito.